EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2017 ABE. DIC. 14
SARRERA/ENTRADA 8109 IRTEERA/SALIDA

2.

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen duten legebiltzar-taldeek honako ERDIBIDEKO ZUZENKETA hau aurkezten diote legez besteko proposamenari, **Bilboko Portuan eraikitzen ari diren harresiari buruz.** Horretarako, indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatu da. [11\11\02\01\0270]

ERDIBIDEKO ZUZENKETA

1. Legebiltzar honek Bilboko Portu Agintaritza eraikitzen ari den harresia arbuiatzen du, ez baitu pertsona errefuxiatuen giza eskubideak errespetatzeko aurrerapausorik ekartzen.

2. Legebiltzar honek harresiaren eraikuntza bertan behera uzteko eskatzen dio Bilboko Portu Agintaritzari.

3. Legebiltzar honek Jaurlaritzari eskatzen dio agindu diezaiola Portu Agintaritzaren baitan dituen ordezkariei harresiaren aurkako iritzia ager dezaten zuzendaritzan.

4. Legebiltzar honek Jaurlaritzari eskatzen dio paper aktiboa har dezala eta plangintza zehatza egin dezala, errefuxiatuek dituzten eskubide eta zerbitzuak bertako herritar ororen pare jartzeko.

5. Legebiltzar honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio adieraz dezala harresi hori eraikitzearen kontrako jarrera, eta kontrako jarrera hori helarazi diezaiela Bilboko portuaren kudeaketan eskumena duten administrazioei.

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Los Grupos Parlamentarios abajo firmantes, al amparo del vigente Reglamento de la Cámara, presentan la siguiente ENMIENDA DE TRANSACCION a la Proposición No de Ley relativa al **muro que se está construyendo en el puerto de Bilbao.** [11\11\02\01\0270]

ENMIENDA DE TRANSACCION

1. El Parlamento condena el muro que está construyendo la Autoridad Portuaria de Bilbao, porque no aporta pasos adelante para respetar los derechos humanos de las personas refugiadas.

2. El Parlamento solicita a la Autoridad Portuaria de Bilbao que suspenda la construcción del muro.

3. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que ordene a sus representantes en la Autoridad Portuaria que muestren en la dirección una opinión contraria al muro.

4. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que tome un papel activo, y realice una planificación concreta, para equiparar los derechos y servicios de las personas refugiadas a los de nuestra ciudadanía.

5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a manifestar su oposición a la construcción de este muro, y a trasladar dicha oposición a las administraciones competentes en la gestión del puerto de Bilbao.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko abenduaren 14ean.

EH Bildu

Elkarrekin Podemos

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus